

ISILTASUNAREN LEGEA

José Luis López de la Calleri

Felipe Juaristi

Pascalek zeru izartuari begiratzen zion
eta isiltasuna aditzen zuen
betikotasunean amildua.
Galdetu bai baina
inork ez zion garbi azaldu
berak zer egiten zuen han,
argitasunaren lekuko,
eta ez beste nonbait,
Itakara iritsi nahian,
edo tartaroen desertuan barrena.
Izan ere, zer da gizakia munduan?,
eza infinituaren ondoan,
ezaren ondoan dena.
Txikitasuna infinituari kontrajarria,
besoz beso harekin borrokan.
Matematikoa izan arren,
Pascalek ez zekien
ikusten zuen argia
aspaldi hildako izarrena zela.
Haiek han, urruti,
hauts bihurtuak;
argia, ordea, begien bistan,
barreiatuz milaka bere grazia.
Ez dugu isiltasuna maite,
bakardadea bezala,
kondena latza denean;
inguratzen eta sumintzen gaitu,
itotzen eta beldurtzen,
itauntzen digu etengabe.
Kontzientzian deiadarka
ari den ahotsa da;
ez digu uzten geure baitatik irten
eta kanpoan jolas gaitezen nahi erara.
Isiltasunak ausentzia neurtzen du,
horren handitasuna areagotzen,

horren hauskortasuna erakusten.
Hildakoen isiltasuna
ez da bizien isiltasuna.
Isiltasun batetik bestera
dabiltza batzuk naufragoen moduan.
Isiltasunaren legea
ez da legearen isiltasuna.
Koldarren isiltasuna,
epelen isiltasuna
gaztelu batetik bestera
dabil gordeleku bila beti.
Ausartak ez dira isiltzen,
hitz egiten dute ahotsa hautsi arte,
idazten dute luma bahitu arte.
Bere burua zuritu nahi ez duenaren
isiltasunak
eta ezer adierazi nahi ez duenarenak
etxe berean hartu dute aterpe.
Ezin gu etxe horretan bizi.
Kantek zeruari begiratu
eta ordena ikusten zuen,
hark ere ez zekien hildakoek
agindutako martxa zela ordukoa.
Gauzen amaiera eta hasiera ezkutuan daude
azalera ekarri ez daitekeen sekretupean.
Isilik hilko gara,
ez da entzungo pentsamenduaren azken oihartzunik,
azken hitza ere gurekin batera aienatuko da.
Lagunen, senideen, maitaleen
esku geratzen da hildakoekin zer egin.
Izarren argiaren dirdirak
ez gaitu kontsolatzen,
baina alaitzen gara,
jakitean dena ez dela galdu,
hori dela oinordetza gurea.

